

**2016KO UZTAILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko ekainaren 30eko akta onartzeko proposamena.

2016ko ekainaren 30eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KONTRATAZIOAK: zerbitzuak esleitzea:

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Puntu honetan ezagutzera eman da, 2016ko uztailaren 14ko Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko apirilaren 29an, Udalbatza Osoak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak kontratazea horretarako baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz. Egikaritze epea 4 urtekoa izango da, urte bateko 2 epealditan luzatzeko aukerarekin. Lizitazio prezioak ondorengoak:

1 Xedea: Loinatz eguneko zentroko erabilera eta kudeaketa:

Kontratuaren lehen urtea (eskaintzaren prezioa):

- *Arreta astelehenetik ostiralera:*
 - *46,59 € plaza/egunean*
 - *15,10 € garraioa/egunean*

- *Arreta asteburu eta jai-egunetan:*
 - *55,14 € plaza/egunean*
 - *17,92 € garraioa/egunean*

Kontratuaren 2. urtea:

- *Arreta astelehenetik ostiralera:*
 - *47,40 € plaza/egunean*
 - *15,36 € garraioa/egunean*

- *Arreta asteburu eta jai-egunetan:*
 - *56,11 € plaza/egunean*
 - *18,24 € garraioa/egunean*

Kontratuaren 3. urtea:

• *Arreta astelehenetik ostiralera:*

- 48,23 € plaza/egunean
- 15,63 € garraioa/egunean

• *Arreta asteburu eta jai-egunetan:*

- 57,09 € plaza/egunean
- 18,56 € garraioa/egunean

Kontratuaren 4. urtea:

• *Arreta astelehenetik ostiralera:*

- 49,08 € plaza/egunean
- 15,89 € garraioa/egunean

• *Arreta asteburu eta jai-egunetan:*

- 58,09 € plaza/egunean
- 18,88 € garraioa/egunean

2. Xedea: etxez etxeko laguntza zerbitzua:

Kontratuaren lehen urtea:

- 21,62 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,00 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 2. urtea:

- 22,00 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,10 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 3. urtea:

- 22,39 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,56 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 4. urtea:

- 22,78 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 27,02 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Esleipenaren prezioa lizitazioarena baino txikiagoa bada, 2.urteko prezioa eta hurrengokoak portzentaje berdinean gutxituko dira.

Lizitazio prezioan sartuta egongo dira gastu eta zerga guztiak, dietak, garraio gastuak, telefono gastuak, etab.

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

2.- Deialdia, 2016ko maiatzaren 5ean argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko 20 eguneko epean lizitaziora, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: GOXARA, S.L. eta ARRETA ASISTENCIAL, S.L.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, lizitatzailer guztiei ARRETA ASISTENCIAL, S.L. enpresari informazioa eskatu zitzaion, enpresa zuzendaritza osatzen dutenei buruzkoa.

4.- 2016ko ekainaren 1ean, B kartazala ireki zen (memoria teknikoa), eta Udalaren hiru gizarte langileek osatutako adituen batzordera pasatzen da txostena egin ahal izateko. Txostena 2016-06-24an ematen da.

EMPRESA	GOXARA S.L.	ARRETA ASISTENCIAL S.L
Eguneko Zentroa		
2.-Esku-hartze proiektua		
Metodologia	18,50	17,50
Zerbitzuak	9,625	6,65
Ebaluaketa	9,75	9,50
3.-Zerbitzua modu egokian emateko bermeak	12,60	13,35
4.-Zentroaren mantentze plana	3,75	4
Etxez etxeko laguntza		
2.-Esku-hartze proiektua		
. Metodologia	18,19	18,706
. Zerbitzuak	10	5
.Ebaluaketa	13,50	13,25
3.-Zerbitzua modu egokian emateko bermeak	16	17

GUZTIRA	111,915	104,956

5.- 2016-06-29an plika irekitzeari buruzko ekintza publikoa egiten da, ondorengo emaitzarekin:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA BEZ GABE
1	GOXARA Servicios Asistenciales	<u>Objeto 1: Concesión de uso y gestión del centro de día Loinatz:</u> Primer año de contrato: •Atención de lunes a viernes: - 45,66 € plaza/día: 15 p. - 14,80 € transporte/día: 10 p. •Atención en fines de semana y festivos: - 50,04 € plaza/día: 3 p. - 17,56 € transporte/día: 2 p. <u>Objeto 2: Servicio de ayuda a domicilio:</u> Primer año de contrato: - 21,40 €/h de lunes a viernes: 25 p. - 25,74 €/h de fin de semana y festivos: 5 p.
2	ARRETA ASISTENCIAL	<u>Objeto 1: Concesión de uso y gestión del centro de día Loinatz:</u> Primer año de contrato: •Atención de lunes a viernes: - 46,59 € plaza/día: 14,7 p. - 15,10 € transporte/día: 9,8 p. •Atención en fines de semana y festivos: - 55,14 € plaza/día: 2,72 p. - 17,92 € transporte/día: 1,96 p.

		<u>Objeto 2: Servicio de ayuda a domicilio:</u> Primer año de contrato: - 21,62 €/h de lunes a viernes: 24,75 p. - 26,00 €/h de fin de semana y festivos: 4,95 p.
--	--	---

6.- Baldintza pleguan ezarritako formularen arabera puntuak eman dira eta esleipen-irizpideen balorazioa guztira, ondorengoa da:

EGUNEKO ZENTROA

ENPRESAK	Eskaintza ekonomikoa /	Esku-hartze proiektua	Zerbitzua ondo emateko	Zentroaren mantentze plana	Guztira
GOXARA Servicios Asistenciales	30	37,875	12,60	3,75	84,23
ARRETA ASISTENCIAL	29,18	33,65	13,35	4	80,18

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

ENPRESAK	Eskaintza ekonomikoa	Esku-hartze proiektua	Zerbitzua ondo emateko bermeak	Guztira
GOXARA Servicios Asistenciales	30	41,69	16	87,69
ARRETA ASISTENCIAL	29,7	36,956	17	83,66

Beraz, enpresa lizitatzailleek lortutako puntuazioa ondorengoa denez:

- GOXARA: 171,92
- ARRETA ASISTENCIAL: 163,84

Kontratazio Mahaiak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak GOXARA S.L.ri esleitzea. Egikaritze epea 4 urtekoa izango da, urte bateko 2 epealditan luzatzeko aukerarekin.

Esleipen prezioa, lehenengo urterako ondorengo da:

1 Xedea: Loinatz eguneko zentroko erabilera eta kudeaketa:

Kontratuaren lehen urtea (eskaintzaren prezioa):

- Arreta astelehenetik ostiralera:
 - 45,66 € plaza/egunean
 - 14,80 € garraioa/egunean
- Arreta asteburu eta jai-egunetan:
 - 50,04 € plaza/egunean
 - 17,56 € garraioa/egunean

2. Xedea: etxez etxeko laguntza zerbitzua:

Kontratuaren lehen urtea:

- 21,40 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 25,74 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

2. urteko prezioa eta hurrengokoak lizitazio prezioarekiko jeitsi diren portzentaia berdinean jeitsiko dira.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 165.146,97 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Enpresa esleipendunak etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko Beasaingo herrian duen bulegoaren adierazpena.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Quisiera agradecer el apoyo de todos los grupos en relación a este tema. En primer lugar la comisión por unanimidad acordó unir los dos objetos en única licitación. El siguiente paso fue el de la redacción de los pliegos, que también recibieron el visto bueno por parte de todos, así como la propuesta que ahora se efectúa.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

- Udal eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzua.

Puntu honetan ezagutzera eman da, 2016ko uztailaren 13ko Kontratazio Mahaiaren ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2016ko apirilaren 28an, Udalbatza Osoak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Beasaingo udal eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzua kontratatzea, horretarako baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz. Lizitazio prezioa urteko, 284.084,47 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 3 urte, urte bateko 3 epealditan luzatzeko aukerarekin.

2.- Deialdia, 2016ko maiatzaren 18an argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean lizitaziora, ondorengo enpresak aurkeztu ziren: UNI 2, SAMSIC, COMERCIAL LIMPIEZA VILLAR, S.A. eta EULEN.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, lizitatzailer guztiei UNI 2 enpresari izan ezik, errekeritu zitzairen Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez izatearen aitortpena..

4.- 2016ko ekainaren 27an, B kartazala ireki zen (proposamen teknikoa), eta Zerbitzuburuak 2016-07-11n ondorengo txostena eman zuen:

Espediente zenb.: 2016ZEBO0026

“BEASAINGO UDAL ERAIKIN ETA LOKALEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ”

BALIO JUDIZIOA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA, B KARTAZALA

Aurrekariak

Lehiaketara aurkeztu diren eta txosten honetan balioztatuko diren enpresak honakoak dira:

- .- COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.L
- .- UNI2, servicios integrales
- .- SAMSIC IBERICA
- .- Grupo EULEN

Balio-judizioa eskatzen duten eta baloratze automatikoko irizpideen aurretik aztertuko diren irizpideak honakoak dira:

- | | |
|----------------------|---------------------------------|
| .- KALITATE TEKNIKOA | 45 puntura arte emango zaizkio. |
| .- HOBEKUNTZAK | 45 puntura arte emango zaizkio. |

KALITATE TEKNIKOA

KALITATE TEKNIKOAREN irizpidearen azterketa administrazio-klausulen agiriaren 20., 21. eta 22. orrialdeetan garatu da. Bertan definitu dira ondorengo kalifikazioak:

“OSO ONA-BIKAINA” (“MBE” gaztelaniaz): dagokion alderdiaren azterketa oso, xehatu eta dokumentatua burutu da, instalazioen benetako ezaguera islatzen da, proposamen zehatzak ditu, antolakuntza koherentea da eta ongi definitu da baliabideei eta aurreikusitako jarduerari dagokienez, jarraipena eta kontrolaren irismen zuzena ezarri da eta praktikoa eta bizkorra da.

“ONA-ONARGARRIA” (“BA” gaztelaniaz): balioztatu beharreko elementuaren azterketa oso eta xehatua burutu da, instalazioen ezaguera islatzen da, antolakuntza koherentea, aurreikusitako jarduerak, jarraipena eta kontrola.

“ARRUNTA-ESKASA” (“RIS” gaztelaniaz): azterketa dagokion alderdiaren azaleko azterketa besterik ez da, instalazioen ezaguera eskasa islatzen da, oso teorikoa alderdi guztietan, baina zehaztasunik gabe.

“ESKASA” (“I”): azterketa osatugabea da, edo aztertu beharreko elementuarekin lotutako informazio edo dokumentazio nahikoa ez du edo elkarren kontrako datuak ditu, instalazioak ez dira bisitatu, proposaturiko baliabideak ez datoz bat errealitatearekin, antolaketa koherentzia gutxi du eta ez du zerbitzuaren exekuzioa bermatzen.

Hurrengo taulak (anexo 1), 22. orriko irudia, balorazioa osatzen duten irizpideen eta azpi-irizpideen laburpena ageri du, aurkeztutako eskaintzaren kalitate teknikoarekin lotutakoak, eta baita jasotako kalifikazioaren arabera lor daitekeen gehienezko puntuazioa ere.

Txostena

1.1 azpi-irizpidea: zerbitzuaren antolakuntza

Klausula teknikoen agirian adierazitakoaren arabera, 3.2 atala ZERBITZUAREN ANTOLAKUNTZA: **“instalazioen ezagueran oinarrituta**, instalazio bakoitzarentzat lizitatzailleak antolakuntza-proposamen bat aurkeztuko du...”.

Instalazioen ezaguera errazte aldera, 5. atalean, ERAIKINETARA BISITAK, honakoa esaten zen: **“lehiaketa honen objektu diren lokalak bisitatzeko interesa duten lizitatzailleek nahi adina aldiz bisitatu ahalko dituzte”**.

Ondoren, alderdi hori aztertuko da lehenik eta behin aurkeztutako proiektuaren oinarri gisa eta, aurrerago, irizpide honekin eskatutako gaiak balioztatu ahal izateko.

.- COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.L

- Instalazioen analisia: eraikin bakoitzarentzat fitxa bat aurkeztu da burututako bisitan hartutako datuekin, hala nola, gela motak, zoruak edo elementu sanitarioen kopurua. Ez da inolako baloraziorik egin eraikinen garbiketaren egoerari buruz eta ez da hasierako ezohiko garbiketarik planteatu.
Alderdi honen balorazioa da lizitatzailleak duen instalazioen ezaguera nahiko azalekoa dela.
- Ez da inolako estimaziorik aurkeztu eraikinek dituzten azalaren inguruan, eskolen kristalezko azalaren estimazioen kasuan izan ezik, eta horiek ere ez dira dokumentatu.
Beraz, ondorioztatzen da zerbitzuaren antolakuntzarako proposatutako giza baliabideen irismena ezartzeko egin duten gauza bakarra izan dela subrogazio-plantilla sartzea, eraikin bakoitzarentzat ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruko datuen arabera, inolaz ere alderatu gabe erabilitako baliabideak eta garatu nahi den jardueraren bolumena.

- Lan-ekipamendu, produktu eta protokoloen inguruko dokumentazioa zuzena da.
- Ez da aurkeztu langileen zonifikazio-azterketarik langile bat baino gehiago behar duten zentroetarako.
- Ez da aurkeztu eskatutako urteko egutegia hamabost egunean behin baino maizago burutu beharreko garbiketentzat.
- Eskatutako taula aurkeztu da, zerbitzu osoaren ikuspegi orokorra laburbiltzen duena, departamentuak burututako kalkuluarekin bat datorren guztirako ordu kopuruarekin. Honek esan nahi du zentro bakoitzean langile-kopuru zuzena ezartzen jakin dutela, gaur egun egiten ari den moduan.
- Kanpoaldeko kristalen sei hilabete behingo garbiketa burutzeko zentroetako kanpoko laguntza-langileak islatzen dituen taula aurkeztu da. Partida honi, guztira, 246 ordu kalkulatu zaizkio urtean.
Partida honen inguruko balorazioa da eskasa dela, departamentuak kontratatutako jardueren inguruko datuak kontuan hartuta. Departamentuaren datu horien arabera ondorioztatu dugu zerbitzu-orduen kopurua 300 eta 350 artekoa izango dela.
Nire iritziz, neurketa faltak eta instalazioen analisi xehatuago bat burutu ez izanak eragin du esleitutako baliabideen eskasia.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: Arrunta-Eskasa – Puntuak: 7,5

.- UNI2, servicios integrales

- Instalazioen analisia: eraikin bakoitzarentzat fitxa bat aurkeztu da, behin baino gehiagotan bisitatu direla agertzen duten datu eta xehetasunekin. Gela motak, zoruak eta mantendu beharreko ezohiko elementuak definitu dira. Eraikinen garbiketaren egoeraren balorazioa egin da eta gabeziak antzeman dira zoruetan, komunetan, igogailuan, patioetan, etab. Aurkitutako gabeziei erantzuna emateko xedearekin, beharrezko jarduerak burutzea planteatu da, zentro zentro, kontratuaren hasieran.
Alderdi honen balorazioa da lizitatzailak duen instalazioen ezaguera ona dela.
- Eraikin bakoitzarentzat gutxi beherako azalerak agertzen dituen taula bat aurkeztu da. Ez da aurkeztu burututako neurketa zehatzen inguruko dokumentaziorik eta, horren ondorioz, aurkeztutako zifrak ez datoz bat errealitatearekin, bereziki Udaletxeari dagokionez.
Neurketa errealak burutzeko prest daudela adierazi dute.
Zerbitzuaren antolakuntzarako proposatutako giza baliabideak justifikatzen dituen kalkulua aurkeztu da, eraikinaren azalera-datuak erlazionatuz AHCP (European Federation of Cleaning Industries) erakundeak emandako errendimendu estandarraren datuekin. Hori kontuan hartuta burutu da agiriari adierazitako orduen eta kalkulua onduz lortutako orduen arteko balantzea, zentro gutxi batzuetan zerbitzu-orduen doiketa proposatuz.
Guzti honekin ondorioztatu daiteke zerbitzuaren antolakuntzarako proposaturiko langileen kalkulua erkatu egin dela dauden azalaren kalkulua kontuan hartuta eta aurkeztutako dokumentuekin justifikatu dela.
- Lan-ekipamenduen, garbiketa -produktu eta -protokoloen eta abarren dokumentazioa xehetasun eta zehaztasun handiarekin garatu da, agiri teknikoan adierazitako puntu guztiak betez.
- Langileen zonifikazio-azterketa aurkeztu da langile bat baino gehiago behar duten zentroetarako eta eraikinen planoak aurkeztu dira.
- Eskatutako urteko egutegia aurkeztu da hamabost egunean behin baino maizago burutu beharreko garbiketentzat. Azterketa osoa eta xehatua da eta plangintza-ahalegin handia islatzen du.
- Eskatutako taula aurkeztu da, zerbitzu osoaren ikuspegi orokorra laburbiltzen duena, departamentuak burututako kalkuluarekin bat datorren guztirako ordu kopuruarekin.
Langileen banaketa berria proposatzen duen azterketa bat aurkeztu da, oraingoaren desberdina dena baina egingarria.
- Kanpoaldeko kristalen sei hilabete behingo garbiketa burutzeko zentroetako kanpoko laguntza-langileak islatzen dituen taula aurkeztu da. Partida honi, guztira, 328,80 ordu kalkulatu zaizkio urtean.
Partida honen inguruko balorazioa da zuzena dela, departamentuak kontratatutako jardueren inguruko datuak kontuan hartuta. Departamentuaren datu horien arabera ondorioztatu dugu zerbitzu-orduen kopurua 300 eta 350 artekoa izango dela.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: OSO ONA-BIKAINA – Puntuak: 30

.- SAMSIC IBERICA

- Instalazioen analisia: eraikin bakoitzarentzat fitxa bat aurkeztu da, oso laburra eta xehetasunik gabea.
Burututako neurketen taula aurkeztu da gela guztientzat eta, horrekin batera, gelen azalaren eta kristalezko barnealdeko eta kanpoaldeko azalaren datuak aurkeztu dira. Gela-motak, okupazio-maila eta zoru-motak definitu dira.
Alderdi honen balorazioa da lizitatzailerak duen instalazioen ezaguera ona dela tratatu beharreko azalaren datu errealak baititu.
- Zentroaren jardueren egokitutako lan-ordutegiak aurkeztu dira eta zentro bakoitzarentzat lan-egutegi xehatuak ere bai. Aldiz, ez dira erkatu neurketetan eskuratutako datuak errendimenduratioekin, edo antzeko parametroekin, zerbitzuaren tamaina ezarri ahal izateko, agirian eskatzen zen moduan.
Zerbitzuaren antolakuntzari dagokion balorazioa da datu errealak izan arren, eta zerbitzuaren uneko esleipenduna izanik, proposamena ez dela behar bezala dokumentatu eta justifikatu agirian eskatzen zenaren arabera.
- Lan-ekipamendu, garbiketa-produktu eta -protokoloen inguruko dokumentazioa zuzena da.
- Langileen zonifikazio-azterketa aurkeztu da langile bat baino gehiago behar duten zentroetarako eta eraikinen planoak aurkeztu dira.
- Ez da aurkeztu eskatutako urteko egutegia hamabost egunean behin baino maizago burutu beharreko garbiketentzat.
- Eskatutako taula aurkeztu da, zerbitzu osoaren ikuspegi orokorra laburbiltzen duena, departamentuak burututako kalkularekin bat datorren guztirako ordu kopuruarekin.
- Kanpoaldeko kristalen sei hilabetearen behingo garbiketa burutzeko zentroetako kanpoko laguntza-langileak islatzen dituen taula aurkeztu da. Partida honi, guztira, 345 ordu kalkulatu zaizkio urtean.
Partida honen inguruko balorazioa da zuzena dela, departamentuak kontratatutako jardueren inguruko datuak kontuan hartuta. Departamentuaren datu horien arabera ondorioztatu dugu zerbitzu-orduen kopurua 300 eta 350 artekoa izango dela.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: OSO ONA-BIKAINA – Puntuak: 21

.- Grupo EULEN

- Instalazioen analisia: eraikin bakoitzarentzat fitxa bat aurkeztu da, oso laburra eta xehetasun gutxiarekin. Egungo gelen tipologia jaso da (oso zehaztugabea) eta zoru-motak ere bai.
Alderdi honen balorazioa da lizitatzailerak duen instalazioen ezaguera azalekoa dela. Ez dira behar adina datu jaso zentro bakoitzaren errealitatea islatzeko.
- Eraikin bakoitzarentzat egungo gelen zerrenda ageri duen taula bat aurkeztu da (oso zehaztugabea eraikin nagusien kasuan) eta gutxi gorabeherako azalera esleitu zaie. Ez da aurkeztu burututako neurketa zehatzen inguruko dokumentaziorik eta, horren ondorioz, aurkeztutako zifrek alde handia dute errealitatearekin zentro nagusien kasuan (udaletxea eta eskolak).
Neurketa errealak burutzeko prest daudela adierazi dute.
Eraikinaren taula osatzeko gela-mota bakoitzari eskainiko zaion denboraren datuak aurkeztu dira eta zentro bakoitzarentzat proposatutako giza baliabideak justifikatu dira.
Ez da aurkeztu zentro bakoitzarentzat proposatutako garbitzaileen banaketa, eta ondorioz, zenbait zentroentzat esleitutako langile-kopurua ez da nahikoa. Ez da aurkeztu garbiketa-ordutegien proposamenik.
Guzti hori kontuan hartuta, ondorioztatzen da zerbitzuaren antolakuntzarako proposatutako langileen azterketa osatugabea dela eta gehienbat agiri teknikoan emandako datuetan oinarrituta

burutu dela. Errendimenduak errealitatearekiko urrun dauden azalaren gainean aplikatu izanak esan nahi du zerbitzua ezingo dela bere horretan burutu eta exekutatu beharreko garbiketa-lanen birplanteamendua beharrezkoa izango dela.

- Lan-ekipamendu, garbiketa-produktu eta -protokoloen inguruko dokumentazioa zuzena da.
 - Ez da aurkeztu eskatutako urteko egutegia hamabost egunean behin baino maizago burutu beharreko garbiketentzat.
 - Langileen zonifikazio-azterketa aurkeztu da langile bat baino gehiago behar duten zentroetarako, baina ez dator bat errealitatearekin, okerra da.
 - Eskatutako taula aurkeztu da, zerbitzu osoaren ikuspegi orokorra laburbiltzen duena, departamentuak burututako kalkuluarekin bat datorren guztirako ordu kopuruarekin.
 - Kanpoaldeko kristalen sei hilabete behingo garbiketa burutzeko zentroetako kanpoko laguntza-langileak islatzen dituen taula aurkeztu da. Partida honi guztira 690 ordu kalkulatu zaizkio urtean eta ordu-kopuru horretan barne daude agirian eskatutako zerbitzu-orduak eta hobekuntzetarako beharrezko ordu gehigarriak.
- 690 ordu horiek HOBEKUNTZEN atalean justifikatutako ordu gehigarriekin alderatu ondoren, ondorioztatu da akatsen bat dagoela, izan ere, eskatutako derrigorrezko zerbitzuen eta proposatutako hobekuntzen baturak, aurkeztutako datuen arabera, 875 orduko bolumena ematen du.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: ONA-ONARGARRIA – Puntuak: 18

1.2 azpi-irizpidea: jarraipena eta kontrola

.- COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.L

- Proposatutako zerbitzuaren jarraipen eta kontrolak honako giza baliabide zuzenak ditu barne: Gainbegiralea, astean 5 ordurekin.
Zerbitzuburua: COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.L.-ren ordezkaria.
- Abian jarri beharreko prozedurak: langileen asistentzia-kontrola, eguneroko garbiketa- eta mantentze-parteak, astean behingo gainbegiralearen ikuskatzeak eta zerbitzuaren hileroko jarraipen-txostena.
- Zerbitzuaren kudeaketa- eta jarraipen-tresnak: Udalak, web plataforma bidez, kudeaketa-programarekin lotutako dokumentazio guztiaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kudeaketa-programa martxan jartzea.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: ONA-ONARGARRIA– Puntuak: 6

.- UNI2, servicios integrales

- Proposatutako zerbitzuaren jarraipen eta kontrolak honako giza baliabide zuzenak ditu barne: Zerbitzuburua, urtean 815 ordurekin, hau da, astean 15 ordurekin.
Kalitate-kontrolerako ikuskatzailea, urtean 300 ordurekin, hau da, astean 5 ordurekin.
Bi postu hauetarako urteko bisiten eta ikuskatzeen egutegi xehatua aurkeztu da.
- Abian jarri beharreko prozedurak: online egingo den langileen asistentzia-kontrola, eguneroko lanen betetze-parteak, zerbitzuburuaren eta kalitate-ikuskatzailearen astean behingo ikuskatzeak (bisita-liburua martxan jartzea), hamabost egunean behingo bilerak Udaleko arduradunarekin, zerbitzuaren hileroko jarraipen-txostena, garbiketaren kalitate-indizea abian jartzea asebetetze-inkesten bidez, zerbitzuaren ebaluazio orokorra hiru hilean behin eta urtean behin, KANPOKO KALITATE AUDITORIA urtean behin.
- Zerbitzuaren kudeaketa- eta jarraipen-tresnak: Udalak, web plataforma bidez, kudeaketa-programarekin lotutako dokumentazio guztiaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kudeaketa-programa martxan jartzea.
Kalitatearen kontrolerako bestelako tresnak: distiraren neurgailua, hautsaren neurgailua, hileroko kontrol mikrobiologikoa (6 kontrol) kanpoko laborategi baten eskutik.
Zerbitzuaren plangintza- eta ezarpen-egutegi osoa eta xehatua aurkeztu da, datekin eta beharko diren baliabideen adierazpenarekin.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: OSO ONA-BIKAINA – Puntuak: 13,5

.- SAMSIC IBERICA

- Proposatutako zerbitzuaren jarraipen eta kontrolak honako giza baliabide zuzenak ditu barne: Zerbitzuaren gainbegiralea, astean 10 ordurekin.
 - Abian jarri beharreko prozedurak: ikuskatzeak zentroetan, aldian behingo bilerak Udaleko arduradunarekin eta hileroko zerbitzuaren kalitate-kontrola kontrol-fitxen bidez.
 - Zerbitzuaren kudeaketa- eta jarraipen-tresnak: Udalak, web plataforma bidez, kudeaketa-programarekin lotutako dokumentazio guztiaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kudeaketa-programa martxan jartzea.
- Ez da aipatu kalitatearen kontrolerako tresna osagarririk.

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: ONA-ONARGARRIA– Puntuak: 6

.- Grupo EULEN

- Proposatutako zerbitzuaren jarraipen eta kontrolak honako giza baliabide zuzenak ditu barne: Arduraduna: zonaldean dauden kontratuen arduraduna izango da, zentroetara joango da arazoak agertzen direnean eta zerbitzuaren exekuzioarekin lotutako informazioa erkatu behar denean. Zerbitzuaren kudeatzailea: astero bisitatuko ditu instalazioak, asteko ordu-kopuru finkorik ezarri gabe.
 - Abian jarri beharreko prozedurak: smartphone bidezko sistema ondorengoen jarraipena egiteko: langileen asistentzia, lanen exekuzioaren kontrola, burutu beharreko lanak eta maiztasunak ezagutzea, lan-partea igortzea. Zerbitzuaren kudeatzaileak astean behin burutuko du ausazko bisita zentroetara eta hilean behin bilduko da Udaleko arduradunarekin. Sei hilabeteen behin bezeroei asebetetze-inkesta egingo zaie. Bi urtean behin, kanpoko auditoria egingo da kontratuaren trazabilitate dokumentalaren ingurukoa (erabili beharreko giza baliabideak, materialak eta zerbitzuak bete direla).
 - Zerbitzuaren kudeaketa- eta jarraipen-tresnak: Udalak, web plataforma bidez, kudeaketa-programarekin lotutako dokumentazio guztiaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen kudeaketa-programa martxan jartzea.
- Kalitatearen kontrolerako bestelako tresnak: distiraren neurgailua, hautsaren neurgailua, hileroko kontrol mikrobiologikoa (6 kontrol).

Adierazitakoa kontuan hartuta, aztertutako azpi-irizpidearen kalifikazio orokorra honakoa da:

Kalifikazioa: ONA-ONARGARRIA– Puntuak: 9

HOBEKUNTZAK, gehieneko puntuazioa: 4 puntu

HOBEKUNTZEN irizpidearen azterketa administrazio-klausulen agiriaren 23. orrialdean garatu da.

Adierazitako moduan, honela baloratuko dira:

.- Maiztasunen areagotzeagatik, sei hilabeteen behingo exekuzio-maiztasuna duten garbiketarako**0,5 puntu**

.- Agiri teknikoan aipatu ez diren garbiketa-zerbitzu berriengatik: **puntu 1 zerbitzu berri bakoitzeko.**

Argitze aldera, agiri teknikoaren arabera, sei hilabeteen behin burutu beharreko garbiketak honakoak dira: kanpoaldeko kristalen garbiketa eta paramentu azulejatuen desinfekzio sakona.

.- COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.L

Honako hobekuntzak aurkeztu ditu:

.- Maiztasunen areagotzeagatik:

- Kanpoaldeko kristalen garbiketa eta paramentu azulejatuen desinfekzio sakona sei hilabetez behin burutu beharrean lau hilabetez behin burutzea ondorengo lokaletan:
EPA, Euskaltegia, Seaska 1, Seaska 4.

Esleitutako puntuak: 0

.- Agiri teknikoan aipatu ez diren garbiketa-zerbitzu berriengatik:

Onartutako hobekuntzak

- Komunetako konkaten isurbideen ukondoen garbiketa lurrin-makina eta hodientzako aplikagailu bidez eta ondorengo vital oxide produktu nanoteknologikoaren aplikazioa ondorengo zentroetan: Murumendi eskola, Alkartasuna lizeoa, Seaska 1 eta Seaska 4.
- Kutxatategien barnealdeko higienizazioa produktu desinfektatzaile eta desodorizatzaileak erabiliz.

Onartu ez diren hobekuntzak

- Murumendicon eskolako patioaren zonaldeko kortxozko zoruen garbiketa desinkrustatzailea presiozko ur-makina bidez.
- Berritxu ludotekako kanpoaldeko plazaren kanpoaldeko eskuilatzea.

Esleitutako puntuak: 2

.- UNI2, servicios integrales

Honako hobekuntzak aurkeztu ditu:

.- Maiztasunen areagotzeagatik:

- Ez da aurkeztu maiztasunak areagotzeko proposamenik.
-

Esleitutako puntuak: 0

.- Agiri teknikoan aipatu ez diren garbiketa-zerbitzu berriengatik:

Onartutako hobekuntzak

- 15 bakterostatikoren instalazioa eta mantentzea komunak desinfekzioa eta desodorizazioa burutzeko.
- Beasaingo Udalaren logotipoa serigrafiatuta duten 7 alfonbren hornidura eta mantentzea.
- Berritxu ludotekaren gainean dauden argi-zuloen garbiketa hiru hilabetez behin.
- Seaska 1-eko patioaren eguzki-oihalen garbiketa urtean behin.
- Urbieta eraikinaren erabilera anitzeko ikasgelaren gortinen garbiketa urtean behin.
- Legionellosia prebenitzeko zerbitzua: txorrita eta dutxen garbiketa sei hilabetez behin.

Onartu ez diren hobekuntzak

- Haurreskolako aldagailuen zonalderako 2 pixoihal-dukiontzia.
- Brigaden aldageletan gerru-baheen instalazioa.

Esleitutako puntuak: 4

.- SAMSIC IBERICA

Honako hobekuntzak aurkeztu ditu:

.- Maiztasunen areagotzeagatik:

- Ez da aurkeztu maiztasunak areagotzeko proposamenik.

Esleitutako puntuak: 0

.- Agiri teknikoan aipatu ez diren garbiketa-zerbitzu berriengatik:

Onartutako hobekuntzak

- Udaletxeko zoruei distira-ematea 2 urtean behin.
- Udaltzaingoaren aldageletako teilapearen garbiketa, urtean bitan.
- Murumendi eskolako zoruei distira-ematea 2 urtean behin.
- Seaska 4ren egurrezko fatxadaren garbiketa, urtean behin.

Onartu ez diren hobekuntzak

- Merkatuko plazaren zoruen eskuilatze mekanikoa, urtean bitan.
- Murumendi eskolako sarrera nagusiko kristalen garbiketa, hiru hilabeteetan behin.

Esleitutako puntuak: 4

.- Grupo EULEN

Honako hobekuntzak aurkeztu ditu:

.- Maiztasunen areagotzeagatik:

- Kristalen garbiketa eta paramentuen desinfekzioa sei hilabeteetan behin burutu beharrean hiru hilabeteetan behin burutuko da zentro guztietan, eskoletan izan ezik, non lau hilabeteetan behin burutuko den.

Esleitutako puntuak: 1

.- Agiri teknikoan aipatu ez diren garbiketa-zerbitzu berriengatik:

Onartutako hobekuntzak

- Murumendi eskolako barneko patioaren tragaluz motako kristalen garbiketa.
- Alkartasuna lizeoan instalatutako jolas-parkearen garbiketa, bolak barne.
- Udaletxeko eraikineko zonalde komunetako zoru gogorren (terrazoa eta marmola) kristalizatzea.
- Haurreskolako zonalde komunetako plastikozko zoruen desugerketa eta ezkoztatzea.

Onartu ez diren hobekuntzak

- Alkartasuna lizeoko minusbaliatuentzako plataformaren ekipamenduen garbiketa eta mantentzea.
- Seaska 1eko kanpoko patioetan jolas-zonaldeen garbiketa hidrogarbigailu bidez.
- Zikinkeriaaren aurkako alfonbren garbiketa- eta mantentze-zerbitzua (17 alfonbra).
- Ondorengoan eskailera eta kanpoaldeko sarbideen garbiketa hidrogarbigailu bidez (karcheo): udaltzaingoaren aldagelak, Murumendi eskola eta Alkartasuna lizeoa.
- Alkartasuna lizeoko sarrerako teilapearen garbiketa.

Esleitutako puntuak: 3

Taula: anexo 2

5.- Gaur ekintza publikoan C kartazaleko proposamen ekonomikoak ireki dira eta emaitza ondorengo izan da:

Lizitazio prezioa BEZ gabe: **urteko 284.084,47 €**

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA BEZ GABE
1	UNI 2	260.648,52 €
2	EULEN	271.534,54 €

3	SAMSIC	278.400,00 €
4	VILLAR, S.A.	281.254,40 €

6.- Enpresa lizitatzailleek guztira lortutako puntuazioa, esleipen irizpideen (proposamen ekonomikoa, kalitate teknikoa eta hobekuntzak) puntutak batuta, ondorengoa da:

LIZITATZAILEAK LICITADORES	KALITATE TEKNIKOA / CALIDAD TÉCNICA	HOBKUNTZAK / MEJORAS	PROPOSAMENA EKONOMIKOA / PROPUESTA ECONÓMICA	GUZTIRA / TOTAL
UNI 2	43,5	4	51	98,5
EULEN	27	4	48,96	79,96
SAMSIC	27	4	47,75	78,75
VILLAR, S.A.	13,5	2	47,26	62,76

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo udal eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzua “**UNI 2 servicios Integrales**”i esleitzea, 260.648,52 €ko prezioan gehi 54.736,19 € (BEZ), baldintza agiri administratibo nahiz tekniko eta esleipendunak egindako eskaintzaren arabera. Egikaritze epea 3 urtekoa izango da, urtebeteko beste hiru epealdirako luzagarria izango delarik.

Bigarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 39.097,28 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Erantzukizun zibileko poliza eratu izana, gutxienez milioi bat euroko urteko estaldurarekin.
- Aldizkarietan publizitate ofiziala egiteko gastuen kontzeptuan, 700,00 €ko ordainketa egin izana.

- Lizitatzailleak proposatutako eta kontratazio organoak onartutako hobekuntzak betetzeko modua egiaztatzeke agiriak. Hobekuntzak hauek dira:
 1. 15 bakterostatikoren instalazioa eta mantentzea komunen desinfekzioa eta desodorizazioa burutzeko.
 2. Beasaingo Udalaren logotipoa serigrafiatuta duten 7 alfonbren hornidura eta mantentzea.
 3. Berritxu ludotekaren gainean dauden argi-zuloen garbiketa hiru hilabeteen behin.
 4. Seaska 1-eko patioaren eguzki-oihalen garbiketa urtean behin.
 5. Urbietara eraikinaren erabilera anitzeko ikasgelaren gortinen garbiketa urtean behin.
 6. Legionellosia prebenitzeko zerbitzua: txorrota eta dutxen garbiketa sei hilabeteen behin.

Hirugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- UDAL SAREA. EAEko tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko akordioa: Udalsarea 21, jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea.

Alkatea jaunak: UDAL SAREA koordinazio eta kooperazio foroa da eta ekintza planak betearaztea sustatzen du. Udal Sarea 203 herrik osatzen dugu. Gu 2007. Urtetik gaude eta proposatzen dena da 2020 abenduaren 31arte luzatzea. Zerbitzu batzordetik gaia pasa zen eta hainbat konpromiso ditugu gure partetik eta tartean urtero elkarte horri ordainketa egitea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

“2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeko Akordioa “Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak”

Eta izendatzen du:

- AITOR ALDASORO ITURBE, Alkate jauna arduradun politiko gisa eta EDORTA DIAZ DEL RIO ordezkari moduan.
- JOSE IGNACIO ARAMENDI LAZKANO, arduradun teknikoa.

4.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-06-27tik 2016-07-21era bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2016-06-27tik 2016-07-21era bitarte emandako Ebazpenak.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA

Garbiñe Zurutuza (BILDU) andreak: “Zenbait galdera ditugu. Gutun bat prestatu dugu eta gutun hori irakurriko dut. 2016ko apirilaren 25etik, ez da gazteria batzorderik egin eta gaia ez dagokion hizkuntza politika batzordera eraman zen. Uztailaren 20an izan genuen hizkuntza politika batzordea eta bertan esan genuen bezala, EH BILDUren ustez, ludoteka eta gaztelekuaren zerbitzuari dagokion pleguak atera edo ez atera, gazteria batzordean eztabaidatzeko puntuetako bat izango litzateke eta gazteria batzorderik ez da egin. Jakitun gara, gazteriako teknikaria bajaran dagoela, baina hori ezin da arrazoi edo aitzakia izan batzordea ez deitzeko. Udalak, gazteei zerbitzuak ematen jarraitu beharra dauka eta hori horrela izan dadin udal gobernuak hartu behar ditu dagozkion erabakiak. Gure susmoa da gazteria sailaren deusezteak dagoela erabaki politiko honen atzetik. Hizkuntza politikako batzordea egin eta hurrengo egunean Alkatearen gutun bat irakurri ahal izan genuen Goierriko Hitzan eta bertan aipatzen ziren hainbat datuen irakurketarekin, ez gatoz bat:

1.- Ludoteka eta gazteleku zerbitzuen inguruan Alkateak aipatzen zituen datu kuantitatiboak ez dira zuzenak. Aisi Hezi elkarteak Udalari aurkeztutako azken txostenetan jasotako datuek agirian uzten dute, nahiz eta zerbitzu baten asistentzia jaitsi, beste zerbitzuetan asistentzia, ez dela jeitsi. Elkarrekin datuak berriro aztertzea eskatzen dizuegu. Orain arte egin ez den bezala. Gure lana, oposizio eraikitzailea egitea da, uzten badiguzue.

2.- Zerbitzu hauek bere garaian euskara indartzeko asmoz sortuak izan zirela esan zigun Alkateak hizkuntza politikako batzordean, baina ez duzue kontutan izan urte hauetan zehar herrian zerbitzu hauek izan duten bilakaera. Ludoteka zein gazteleku zerbitzuak espazio hezitzaileak dira eta bai Aldundian eta baita Gipuzkoako herri gehienak ere ibilbide honetan ari dira lanean. Horregatik ere baloratzen dugu horrelako zerbitzuetan ezin direla datu kuantitatibo soilak baloratu. Ados, zerbitzu guztiak berrikusi egin behar dira. Diru publikoak erabiltzen ari garen heinean. Alkateak aipatzen zuen formula egoki hori denon artean aurkitzeko. Horretarako borondatea badago, gu prest gaude.

3.- Aurreko esleipenaren prezioa, 89.000,00 €koa izan zen. Ez 100.000,00 €takoa eta esleipena hiru zerbitzu ezberdin eskaintzeko zen: astelehenetik igandera eta 5-17 urte bitarte haur eta nerabeentzat. Beraz, ez zaigu diru publikoa xahutzea iruditzen eta argi duguna da askoz ere gazte gehiagorengana iritsi beharko genukeela, zerbitzuaz egokituz, gaur eguneko beharretara egokituz..., beharrak egon, badaudelako.

4.- Haur eta nerabeentzako Beasainen dauden beste zenbait eskaintza, baloratzen ditu Alkateak, baina, nola lortu dute Musika Eskolak, dantzak edo futbolak, gaur egun duten egonkortasuna?. Udalak bultzatu eta lagundu dituelako. Zerbitzu guztiekin egin beharko litzateke berdina, gure ustez.

5.- Euskararen ezagutza eta erabilera datuen kezkatzen gaituzte. Gu ere bai, noski. Eta hizkuntzaren normalkuntzaren alde egiten den edozein aurrera pauso babestuko dugu. Horrek ezin du ekarri beharrezkoak diren beste udal zerbitzu batzuen deuseztapena. Euskara errefortzurako zerbitzu hau ludoteka eta gazteleku zerbitzu ireki eta inklusibo zerbitzu baten barruan ulertzen dugu guk. Tankera proiektuak martxan dituzte, Gipuzkoako beste hainbat herrietan.

6.- Aipagarria da egiten duzuen hausnarketa egin ondoren Eizu zerbitzua etetea erabakitzea, jakinda hezkuntza batzordean aipatu zen bezala, euskararen erabilpen datuak 12-16 urtekoen bitartean direla kezkarrienak. Azkeneko hezkuntza batzordean ikastetxeei ematen zaien dirulaguntzen irizpideen inguruan hitz egin genuen eta bertan proposatu zitzaigun, zerbitzua behar duten gazteei zuzenduriko diru-laguntza bat bideratzea. Oso oker ez bagaude, diru partida bikoizten ari zarete, zerbitzu berdina eskaintzeko ala?. Nola emango da 12-16 tarte horretarako euskara errefortzua?. Zer pentsatu duzue?. Zalantza asko ditugu hizkuntza errefortzu honen proposamenarekin. Besteak beste, behar den bezala sakondu gabeko puntua delako eta dena eginda aurkeztu zaigulako eta gure ekarpenak egin ahal izateko aukera errealik ez dugulako izan.

Amaitzeko berriro ere esan nahi dugu, udal gobernuak ludoteka eta gaztelekuaren zerbitzuaren bideragarritasunaren eztabaida hori eman gabe, zerbitzua etetea erabaki duela. Alde bakarreko erabakia izan dela eta larria iruditzen zaigula horrelako erabakia hartzea oposizioarekin hausnarketa sakon bat egin gabe. Gaurko udalbatza honen aurretik egin den gobernu batzordean onartu da hizkuntza errefortzuko baldintza plegua eta, berriro ere esango dugu, ez duela zer ikusirik lehen zegoen baldintza pleguarekin. Ludoteka baten helburua, aisialdian hezitzea eta parte hartzen duten kideen sozializazioa bultzatzea da eta era berean norbanakoen garapen emozionalean laguntzea. Beasaingo udalerrian batean zerbitzu hau ematea, ezinbestekotzat jotzen dugu, gainera jakinda, zerbitzu honek dituen erabiltzaileak eta duen urteetako ibilbidea. Hori da aztertu beharko genukeena: gazteak gure espazio honetara gerturatzea eta erakartzea heziketaren bidez, aisialdia lagun eta euskaraz biziz. Hori da gure erronka, herriko gazte guztientzako formula egokia bilatzea. Gure ustez eta orain arte egin den bezala, ludotekaren zerbitzuaren barruan txertatu beharko litzateke hizkuntza errefortzuaren zerbitzua.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hainbat galdera egin edo esan dituzu eta saiatuko naiz erantzuten ahalik eta zehatzen. Guri eta gobernu batzordean ere esan dut, lau urteko epealdia orain bukatzen zen, eskaintzarena hain zuzen ere eta iruditzen zaigu orain dela hausnarketa egiteko momentua haratago joan nahi badugu. Datuak ikusi, aztertu, konparatu eta datu horien arabera norabidea, gure ustez, zuzendu eta hasi zen filosofiarekin, hau da, hizkuntza errefortzua izatearena, horrekin jarraitu. Lau urteko epea ekainean amaitu da eta momentua iruditzen zitzaigun. Aipatu duzu, gaztedia batzordetik pasatu behar zuela eta egia da gazteriako teknikariak ez egoteak ez duela lagundu, baina esan azkenetako gazteria batzordean esan zen gaia aztergai zegoela, hartzaileen beherakada izugarria izan zelako azken urtean. Beraiek, hau da, gazteria sailekoek ere kezkatuta zeuden eta guk ere konpartitzen genuen kezka hori. Behin hori ikusita eta jabetuz hizkuntza errefortzua zela behar zena eta gazteria batzordearen egoera aintzakotzat hartuz, pentsatu zen hizkuntza politika batzordetik pasatzea. Bi aldiz pasatu da eta iruditzen zaigu aukera egon dela debatitzeko eta hizkuntza batzordea da horren testigu, denbora handiz egon ginelako debatitzen. Oker

ez banabil ordu eta erdi, bakoitzak bere argudioak mahai gainera botatzen. Hortik aurrera zer esan. Guk datuak aztertu ditugu eta beraien memoriatatik ateratakoak dira. Beraien memoriak esaten dute, Txelotzen 14 pertsona dabiltzala bataz beste. Berritsun 5-8 urte bitarte 13 pertsona bataz beste eta Berritsun 9tik 12ra, 3 pertsona. Azkeneko sei hilabetetan ateratako datuak dira eta horrek bi ludotekak hartuta 15eko bataz bestea ematen digu. Neretzat ere eta dudarik gabe egin beharreko hausnarketa bakarra ez da kuantitatiboa, nahiz eta jakitun izan hainbat eskaintza egiten direnean eta hor dator herrian egiten dugun konparaketa. Lau urtekoa bukatuko ez balitz, behar bada ez ginateke hortaz hitz egiten jardungo. Lau urtekoa amaitzeak behartu egin du, erabakia hartu behar bazen, lehenbailehen hartzea. Askotan esan dut, Sasi eskolak, 185 ume dituela. Aurtzaka dantza taldeak, azkeneko hiru urteetan egundoko gorakada eman du, 200 ume dabilta. Igeriketan ere ume dezente ibiltzen dira, nahiz eta aspalditxoko eskaintza izan. Futbol eskolan, 172, Musika Eskolan, 183. Ondo ordaintutakoak dira, zeren eta udaletik ematen den eskaintza hileko 7 euro ordaintzen dira. Guri iruditzen zaigu, gauza bat argi dagoela, hau da, herritarrak ez duela besteekin alderatuta hainbeste baloratzen. Guk zer nahi dugu?. Ba kuantitatiboki igo. Kualitatiboki kostatuko zaigula dudarik ere ez dago. Zalantzak dituzuela aipatzen zenuen. Baita guk ere, ez dakigulako funtzionatuko duen ala ez. Apustu bat da egiten dena eta konforme egon gabe, anbizio gehiagorekin lehen zegoenarekiko. Inklusioa eta parte hartzea aipatzen da behin eta berriro. Ez dut uste eskaintza berriak bizkarra emango dionik inklusioa eta parte hartzeari, enpresa horrek txukun kudeatu duelako euskara errefortzua lehen helburua bezala hartuta. Gaztelekua eten egingo da bai, baina hizkuntza erabileran aldaketak ematen direlako 12tik 16ra. Horregatik jarri zen gazteleku eskaintza bere garaian, euskara batzordetik eta zerbitzu horrek gure ustez, behintzat, ez du helbururik bete eta gutxiago ere. Jarraipena egin zaio azken sei hilabetean eta euskaraz sartzeko zirenak erdaraz ateratzen zirelako, aste buruko eskaintzan. Horrek eramaten gaitu beste arrazoi batzuen artean, etetea baina horrek ez du esan nahi ixtea. Iruditzen zaigu hizkuntza ohiturak ez galtze arren udal bezala, hizkuntza errefortzua eskaini behar dugula. Helduko diogu denboran, baina iruditzen zaigu behar bada erdi gunean, toki egokigo bat bilatu behar dela, zailtasunak erraztasun bilatzeko. Nik uste dut tartea egon dela, batzordeak horretarako dira, bakoitzak gure planteamenduak egiteko eta aurrera begira, honek jarraipena eskatuko du eta ikusi egin beharko da aurrera egiten den kuantitatiboki eta kualitatiboki. Hezkuntza mundua zorrotz arituko da begira, beraiek direlako hartzaile garrantzitsuenak eta beharrezkoenak neurri handi batean. Beraiekin elkarlanean ari gara. Begi onez ikusi dute eta guretzat ere zalantza betetako erronka da. Ikuskizun dago.”

Garbiñe Zurutuza andreak (BILDU): “Dena dago ikuskizun. Esaten zenuen tartea izan dugula. Ez gara horretan sartu behar, baina guk aldarrikatu dugu ez dugula tarterik izan eta tartea ez izateaz gain, azpimarratu nahiko genukeena da ematen diren datuak ez direla errealak. Hori bera esan genuen hizkuntza politikako batzordean eta datu horiek errebatitzeko, zuek esaten duzue azken sei hilabetetako datuak errebisatu dituzuela, guk 2010. urtetik egi dugu jarraipena, datu errealekin. Hori batzordean aipatu genizuen eta datu horiek udalaren esku daude. Beraz ez da erreala ekainaren 21eko HITZAn azaltzen dena. Paperak dena soportatzen du. Hori dira zure hitzak. Erabakia zuena da, noski, baina guri iruditzen zaigu gaizki hartutako erabakia dela eta hori salatzea gure eginkizuna dela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Pasa den Plenoan akordatzen naiz berdina esan zenutela, hau da, inondik pasatu gabeko erabakia hartzen ari ginela. Tartean hizkuntza

politika batzordeko azken akta jaso dugu eta han esan ziren hemen errepikatu ditudan datuak. Pleguak aurkeztu ziren aurreko batzordean ere, tartean egon zen, hortaz hitz egiteko. Datuena diozu. Beraien memoriatik jasotako datuak dira irailetik otsaila bitartekoak. Hemen ez dago inolako intentziorik. Hobe gauzak hobeto joan izan ba ziren. Enpresa berak onartzen du datuak kezkarriak direla eta beherakada izugarria izan dela. Lau urteak amaitzeak erabaki bat hartzea eraman gaitu eta jiro bat egitea, hizkuntza errefortzu aldera iruditzen zaigulako udalaren eskumena dela eta hori indartu nahi dugulako.”

Garbiñe Zurutuza andreak (BILDU): “Enpresak azkeneko hizkuntza politika batzordean esan zuen bezala, apirila bitarte beraiek zuten azkeneko notizia zen baldintza plegu berriak lantzen ari zirela eta zirriborroa ere egina zegoela, baina bat batean ezusteko aldaketa etorri da eta zuk datu kuantitatiboak aipatzeaz gain aipatzen duzu batzordean gai hau jorratu zela. Ekainaren 20an egin zen batzordean zuei interesatzen zaizuen datuak bakarrik eman ziren. Beherapena adin tarte batean bakarrik eman bada, Udalak egin behar duena da neurri zuzentzaileak jarri hori ez pasatzeko eta ez zerbitzua bertan behera utzi.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Zerbitzua ez da bertan behera uzten, Jolaserako tarte eskainiko da. Lehen ematen zen bezala ez da emango, baina giro bat eman behar da baina onera. Gure erronka da eta konparaketa bat egin dugu Gipuzkoako beste herri batzuekin eta iruditzen zaigu zenbakiak kezkarriak direla. Ikusiko dugu ondo ateratzen den.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.